

4.1 Monarkiaren behin betiko krisia.

Miguel Primo de Riverak 1923an tropak kalera atera zituen eta oposizio nabarmen barik agintea lortu zuen, izan ere, herriak arazoak konpontzea nahi zuen, eta oligarkia kontserbadoreak pozik hartu zuen egoera berria. Alfonso XIII.ak gobernu autoritario bat nahi zuen, ageriko babesa emanaz diktadoreari; esan ahal dogu erregearen babesa beharrezkoa izan zela arrakastarako, hortaz, Alfonso erregea altxamendu zein diktaduraren mantenuaren erantzule izan zen.

Miguel Primo de Riverak Errestaurazio sasoiko arazoei, autoritarismo kontserbadorearen bidez erantzuten salatu zen, behin behineko gobernu izango zena luzatuz instituzionalizazio prozesua martxan jartzean; hala ere, Erregimenaren kontrako oposizioak (Unibertsitateko intelektualek zentsura salatuz, anarkistak, komunistak, nazionalistak...) diktaduraren gainbehera bultzatu zuen.

Diktadoreak bazekien armada zuela laguntzarik sendoena baina harremanak okertu ziren, baita erregearekin ere; horrez gain, gaixo zegoen, honela, dimisioa aurkeztu zion erregeari 1930an. Erregea bakarrik gelditu zen diktaduraren eta monarkia beraren gainbeheraren aurrean.

Berenguer jeneralari agindu zion normaltasuna ezartzeko, "diktablanda" ezagututako gobernu. Paralisi politiko hartatik ateratzeko, udal hauteskundeak antolatu ziren. Bitartean oposizioko talde errepublikarrak Donostiako Ituna sinatu zuten, monarkia eraisteko estrategia komun bat adosteko asmoz. Batzorde Iraultzaile bat sortu zen monarkiaren erorketa bultzatzeko; Jacan altxamendu armatu bat antolatu zen aurreikusitako data baino hiru egun lehenago. Ekintzaren azkartasuna dela eta, porrot egin zuen. Egun horretan bertan, eta Gerra Kontseilu baten ondoren (40 minutu baino ez zituen iraun) mabinadaren buru izan ziren Galan eta Garcia Hernandez kapitainak fusilatu zituzten. Gertaera honek monarkiaren porrota bultzatu zuen. 1931ko udal hauteskundeek izaera plebiszitarioa izan zuten eta fusilatutako kapitainen oroitzapena oso presente egon zen hauteskunde-kanpainan.

Alderdi errepublikarrak izan ziran garaile, horrela II. Errepublika aldarrikatuz; Alfonso XIII.a erbestera joateko negoziazioak egin ziran, berak izan zuelarik eraginik handiena monarkiaren gainbeheran eta holan amaitu zan monarkiaren garaia, modu baketsuan.

Monarkiaren gainbeheran, beraz, eragin handia izan zuen erregearen jarrerak; Berrezarkuntzaren azken etapan egondako arazoei ez zitzaion erantzun egokia eman, herria kaltetuena izanik euren eskaerak aintzat ez hartzean, bai eskaera laboralak proletargoen aldetik, bai politikoak parte hartze politikoa sustatzeko; kolonietako gerrek ere heriotza suposatzen zuten herri xehearentzat. Horrez gain, alderdi politikoak baztertuta zeuden sistematik, ezegonkortasun soziala areagotuz

1937/11/11

sasoi honetan. Primo de Rivera autoritarismo kontserbadorearen bidez arazo hauek konpontzen ahalegindu zen , monarkia agortuta zegoela agerian utziz.

II.ERK.aren aldarrikapenarekin ITXAROPEN sasoia hasi zen herritarrentzat,
egoera sozial eta politiko larriari irtenbidea aurkitzeko nahian.

4. GAIA II.ERREPUBLIKA(1931-36)

4.2 Biurteko errepublikar-sozialista eta haren erreformak.

Primo de Riveraren diktaduraren ondoren ,1931.ko hauteskundeetan alderdi errepublikarrak izan ziren garaile, horrela II. Errepublika aldarrikatuz; Alfonso XIII.a erbestera joateko negoziazioak egin ziren eta holan amaitu zen monarkiaren garaia, modu baketsuan.

Herritarrek ITXAROPEN handiz bizi izan zuten etapa hau, herrialdearen egoera sozial eta politiko larriari irtenbidea aurkitzeko nahian.

Behin-behineko gobernuak koalizio errepublikar sozialistak osotzen zuen, Niceto Alcalá-Zamora buru ;erdi mailakoek oligarkiaren lekua hartu zuten hasieran eta erregimen berria bermatzeko erreforma egitasmo zabala jarri zuten abian;aldi berean, hauteskundeetarako deia egin zuten Gorte Konstituziogileak eratzeko; errepublikar-sozialistak nagusitu ziren, Azaña gobernuburu jarritz.Biurteko Erreformista/Azañistan aurreko erreforma egitasmoarekin jarraitu zuten, Espainia zein EHko egiturazko arazoak errotik konpontzeko eta demokrazia, laikotasun eta kulturaren balioak sustatzeko.(1931-33).

Erreforma militarra. Indar armatuak aginte zibilaren menpe jartzeko, euren beldur baitziren.

- **Nekazal erreforma.** Errepublikak nekazariak XIX.mendetik eskatzen zituzten neurriak indarrean

jartzeko ardura hartu zuen. Nekazal gunea iraultzarako potentzial bikaina zen, izan ere, lurraren jabetza gutxiren esku zegoen. Dekretu batzuk ezarri ziren, baina bai lurjabe zein nekazariak kontra jarri ziren. Erreforma geldoa izan zen eta, ondorioz, nekazari askok anarkismorantz jo zuten.

- **Erljioaren erreforma.** Elizak gizartean zuen eragina murriztu nahi zuten; dibortzioa, ezkontza zibila... onartu ziren, erlijioaren derrigorrezko irakaskuntza kendu...katoliko eta errepublikarren arteko tentsioa areagotuz.
- **Autonomien auzia.** Kataluniak bere Autonomia Estatutu propioa berehala lortu zuen, euskal autonomian,ordea, arazoak egon ziren, erlijioaren auzia zela eta.
- **Hezkuntzaren erreforma,** herrialdea modernizatzeko ezinbestekotzat jo ebena.

1931an konstituzio barria idatzi zan; ezkertiarra, demokratikoa, deszentralizatua eta laikoa , ekarpenik inportanteena gizon zein emakumezkoen sufragio unibertsala jasotzea izanik.

Gizarte gatazkak larritu zuten gobernu erreformistaren krisia ; Casas Viejaseko matxinadaren kontra bideratutako zapalkuntza kalte politiko konponezina egin zion Azañari,dimisioa eskatuz eta hauteskunde deialdia eginez (Biurteko Eskuindarra etapa hasi zen ondorioz).

Aitor Perez 2025/12/17

4. II. ERREPUBLIKA.(1931-36)

4.3. 1931ko konstituzioa

Primo de Riveraren diktaduraren ondoren ,1931.ko hauteskundeetan alderdi errepublikarrak izan ziren garaile, horrela II. Errepublika aldarrikatuz; Alfonso XIII.a erbestera joateko negoziazioak egin ziren eta holan amaitu zen monarkiaren garaia, modu baketsuan.

Herriarrek ITXAROPEN handiz bizi izan zuten etapa hau, herrialdearen egoera sozial eta politiko larriari irtenbidea aurkitzeko nahian.

Behin-behineko gobernuak koalizio errepublikar sozialistak osotzen zuen, Niceto Alcalá-Zamora buru ;erdi mailakoek oligarkiaren lekua hartu zuten hasieran eta erregimen berria bermatzeko erreforma egitasmo zabala jarri zuten abian;aldi berean, hauteskundeetarako deia egin zuten Gorte Konstituziogileak eratzeke; errepublikar-sozialistak nagusitu ziren, Azaña gobernuburu jarritz.Biurteko Erreformista/Azañistan aurreko erreforma egitasmoarekin jarraitu zuten, Espainia zein EHko egiturazko arazoak errotik konpontzeko eta demokrazia, laikotasun eta kulturaren balioak sustatzeko.(1931-33).

1931an konstituzio berria idatzi zen; ezkertiarra, demokratikoa, deszentralizatua eta laikoa,eliza-estatua bananduz. Eskubide indibidualak zein politikoak aitortu ziren, legea herriaren borondatearen adierazpena izanik.Eskubide laboralak hobetu ziren ,eta ezkontza zibila eta dibortzioa ere onartu ziren.

Konstituzio honen ekarpenik inportanteena ,lehen aldiz oinarritzko printzipio demokratiko bat jasotzea izan zen, gizon zein emakumezkoen sufragio unibertsala ,honela emakumeek politika eta gizarteko beste esparruetan parte hartzeko aukera izan zuten,aldarrikapen sozio-politikoak eginez.

Aipatzeko da Victoria Kent emakume parlamentariaren papera sufragio unibertsalaren borrokan. Victoria Kentek Errepublika

defendatzea zen inportanteena; bere ustez, emakumea ez zegoen prest botoa emateko, elizaren menpe zegoelako eta horrela kontserbadoreek berreskuratuko zuten agintea aurrerapen guztiak bertan behera utziz . Azkenean, eta eztabaida askoren ondoren, Clara Campoamor eta beste errepublikar batzuei esker ,sufragio unibertsala lortu zen Espainian lehen

1933ko hauteskundeetan emakumeek lehen aldiz botoa eman ahal izan zuten; kontserbadoreak eta CEDA taldea izan ziren (baina antza emakumeen botoa ez zen erabakigarri izan ,Azañaren gobernuaren desgastea bai; gainera ,36an berriro ezkerak irabazi zuen)garaile Biurteko Eskuindarrari hasiera emanez eta aurreko lorpenak bertan behera utziz .

1939an diktadura ezartzean, emakumearen alde egindako lorpen guztiak bertan behera gelditu ziren, emakumea berriz ama eta emazte izatera behartuz.

Aitor Perez 2025/12/17

4. GAIA II.ERREPUBLIKA(1931-36)

4.4 Biurteko erradikal-cedista edo kontrarreformatzailea.

1933ko hauteskundeetan, Biurteko Azañistaren ostean , (emakumeek botoa emoteko eskubidea izan zuten lehen aldiz Espainian) ezkerrek hondamen handia izan zuen eta errepublikar eskuindarrak eta CEDA talde kontserbadorea izan ziren garaile ,erreformen kontrako politika abian jarri.

Aurreko lorpen asko deuseztatu zituzten baina bere politikarako ahalmen ezak kolokan jarri zuen erregimenaren egonkortasuna.

Nekazaritzako kontraerreformak nekazarien protestak areagotu zituen , ; autonomien eztabaida ere bertan behera gelditu zen ,Hego EHan EAJ k apurtu zituen loturak karlistekin, autonomien kontrako jarrera eta Kontzertu Ekonomikoa ezabatu nahi zutelakoan..., eleizaren aldeko neurriak hartu zituzten , eskola publikoen eraikuntza atzeratu zen...

Indar politikoen berrantolaketa gertatu zen; JONS eta Falangea elkartu ziren ,ideologia fascista-autoritarioa zuten , estatu kolpearen alde agertuz ; CEDAk Hitlerren manifestazioak imitatzen zituen...Alderdi progresista batzuk Ezker Errepublikazalea taldean batu ziren...

Polarizazio politikoa nabarmena zen , tentsio giroa areagotuz ezkertiar eta eskuindarren artean ; CEDA alderdia gobernuan sartzeak eta horrek faxismoa eta ERK.a suntsitzea ekar zezakeen beldur , 1934ko Iraultza gertatu zen(azken iraultza proletarioa mendebaldean eta gerraren aurrekaria),arrakasta izanik Asturiasen , bertan ezkertiar guztiak elkartzean.Gobernuak armada(Franco buru) bidali zuen eta errepresio gogorra ezarri, zapaldu zuten.

Erradikalizazioak ,eskuindar eta ezkertiarren arteko gorrotoa handitzea ekarri zuen .1936ko hauteskundeetan ezkertiarrek elkartu ziren(anarkistak ez) gobernuari aurre egiteko, Fronte Popularraren koalizioan ; garaile izan ziren erreformak berriz martxan jarritz .Hala ere , iraultza giroak orden publikoaren degradazioa ekarri zuen ; atzerakoienei indarrez boterea hartzea erabaki zuten.

Eskuindarrek ERK.aren kontra antolatutako konspirazioa prest zegoen , armada monarkikoekin, karlistekin ...elkartu zen eta Franco jeneralaren gidaritzapean Aitzamendu Nazionala hasi zen, Gerra Zibilar hasiera emanez eta esperientzia demokratiko errepublikarra suntsituz.